

MAIZ EGINDAKO GALDERAK

1. BAZKALEKUTAKO GEHIENKO KOPURURA IRISTEN BAGARA ETA JAITSIERA PORTZENTAIK APLIKATU BEHAR BADIRA:

Lehenbiziko portzentaia aplikatu ondotik oraindik topetik gora baldin bagaude, bigarren portzentaia aplikatuko da UGM kopuruan oinarrituta. Hala ere gainera geratuko balitz, lehenbiziko jaitsiera aplikatu ondotik ateratako UGM-en kopurua erabiliko da oinarri bezala berriz kalkulua egiteko.

Adibidea: Nekazari baten kasuan, ardiekin dabil eta 200 ardi bota nahi ditu Lizartzura. Hau 20UGM dira. Baina Lizartzu bete da.

$20 \times 0.9 = 18 \text{UGM}$, 180 ardi sar ditzake

Jaitsiera hau aplikatuta oraindik Lizartzuk beteta segitzen du (300UGMtik gora gaude).

$20 \times 0.85 = 17 \text{UGM}$ 170 ardi sar ditzake

Hau era aplikatu ondotik, Lizartzun oraindik 300 UGMtik gora gaude

$18 \times 0.85 = 15.3 \text{UGM}$, kasu honetan 153 ardi sar ditzake

2. ZER GERTATZEN DA , TOPE HORIEK APLIKATUTA ETA BAZKALEKUTAN SAR EZ DEZAKEDAN AZIENDEK EMANEN ZIDATEN HEKTAREEKIN.

Hektarea horiekin bi gauza egin daitezke

1. Larre librean azienda alhatuz hektareak mantendu eta aldaketa horren berri udaletxean eman (idatziz 4. eranskina)
2. Larre librean hektareak erabili nahi ez badituzu ,falta diren UGM horiek ez dira kontutan hartuko hektareen banaketa egiterakoan.

3. NERE ZINPEKO AITORPENEAN BIDALIKO DUDAN AZIENDA NERE BEHARRAK ASETZEKO BAINO HEKTAREA GEHIAGO EMATEN BALIDATE ETA HEKTAREA HAUEK ITZULTZEN BADITUT, AZIENDA GUTXIAGO ALHATU DEZAKET?

Ez , zure zinpeko aitorpenean , zuk azienda kopuru hori larretu behar duzula erran duzu, ondorioz batzar nagusiak eta kalkulua egiten duten teknikariek azienda horiek larrean (edo bazkalekutan) egonen direla kontatzen dute eta horrekin egiten dira banaketa kalkulu guziak. Ondotik, soberan dituzun hektarea horiek itzultzen badituzu , hauek gainerako nekazarien artean banatuko dira.

4. BURUREN BAT BAZKALEKURA JOAN AURRETIK ERITASUNA EDO ARAZOA BALDIN BADU?

Azienda bazkalekura ez joateko arrazoiak justifikatu beharko dira idatziz eta arrazoituz. Erran nahi da, 10UGM bidaliko zenituela jarri baduzu eta gutxiagorekin agertzen bazara eta horren justifikaziorik ez baduzu (albaiteroaren errezeta edo bisitaren agiria...) falta bat bezala hartuko da hutsegitea. Falta horrekin justifikazioaren onarpena kontrol komisioren esku utziko da.

5. AZIENDA BAZKALEKURA BIDALI ONDOTIK, BURUA ALDATU DEZAKET?

Bai, abisua ematea gomendatzen da (horrela arazoak ekiditeko) eta azienda aldatu daiteke. Bi buruk buru baten larretze epea egin dezakete baina guztiz debekatua dago buru batek , larrean egote epea bikoiztuta ere, bi bururen larretze epea betetzea

6. AZIENDA LARRETU DUDANEAN ETA BAZKA ESKASIAGATIK ETXERA BUELTAN EKARTZEKO BAIMENA DUDANEAN, UDALEKO LARRESARIA ITZULIKO DA?

Ez, larresaria ez da itzuliko ondoko arrazoiengatik:

1. Azienda biltzeko baimena eman zaizu baina ez zaizu bazkalekua uztera behartu, hori zuk erabaki duzu zure aziendaren ongizateagatik
2. Azienda horiek larretzeagatik eman zaizkizun hektareak , zuk dirulaguntza bat lortzeko erabili duzu eta dirulaguntz horrek eman zaitzakeen etekina ordaindutako larresariaren portzentaia baino askoz handiagoa da.

7. NERE USTIAPENA PRODUKZIO USTIAPEN BEZALA HARTZEKO , ZEINTZUK DIRA BALDINTZAK.

Ustiapen bat produkziozkoa bezala hartzeko baldintza nagusia ondokoa da. Ustiapen horretako jarduera nagusia ondokoa izan beharko du:

1. Esnetako behiak
2. Esnetako ardiak
3. Ekoizpen mixtoko ardiak (haragia+esnea)
4. Txekor eta aratzeak gizentzea
5. Beste motatako gizentze edo ekoizpenak (zerriak, oilaskoak, ahateak, arroltze ekoizpena)

Ekoizpen ustiapena dela erakusteko inspeksio edo kontrol bat egonez gero ondokoa erakutsi beharko da:

- NPB/PAC dirulaguntzetan ekoizpen ustiaketa laguntza jasotzea
- Instalazioen ikuskapena esnetako behien , arroltze ekoizleen, ahate , zerri edo oilasko gizentzeen kasuan.

8. ZER GERTATZEN DA ERITASUNAGATIK EDO BESTE ARRAZOI LARRI BATENGATIK NERE ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEAN JASOTAKOA BETE EZIN BADUT?

Erantzukizunpeko adierazpena ez betetzea arazo larri batengatik baldin bada, justifikazio agiriak izanen dituzu. Hortaz horrelako kasuetan agiri hauek 4. eranskin batekin batera udaletxean aurkeztu eta kontrol komisiok egoera aztertu ondok, egin beharreko ondoko pausuak azalduko dizkizu.

9. ZER GERTATZEN DA NIRE AZIENDAK NEGUAN BAZKALEKURA BIDALI ETA ELURRAGATIK BILTZEN BADITUT.

Hau gerta daitekeenez, gehienbat garaiera handiko bazkalekutan (Belate eta Erdiz), zuen azienda aurretik mendi librean larretzea gomendatzen zaizue, horrela larretze epeak bete ahal izateko.

Zure azienda sarrera irailaren 21ean bada, kontuan hartu zaldi aziendekin ezingo duzula 4 hilabeteko tarte bat, ondorioz aurretik larrean eduki behar dituzu azienda horiek. Ardien kasuan arrisku handia da abenduaren 21ean deklaratzeko, horregatik aurretik larrean eduki beharko dituzu.

10.ZER GERTATZEN DA LEHENENGO USTIAPENEN DOKUMENTAZIOA BALDIN BADUT BAINA LEHENTASUNEZKOA EZ BANAIZ.

Kasu horretan lehen instalazioko balorazioa ezarriko zaizu baina 80 Hektareatako topea jarriko zaizu.

11.ZEIN DA KONTUTAN HARTUKO DEN AZIENDA KOPURUA

Ustiapen bakoitzak otsailaren 28an duen azienda zensoa kontutan hartuko da ustiapen horren larretze azizuden kopuruak ikuskatzeko. Salbuespen gisa eta dokumentazioaren prestatzea luze joaten denez, lehenengo ustiapenen kasuan epeak luzeagoa eta malguago izanen da.

12.ZER GERTATZEN DA , AZIENDAREN SANEMANDUAN POSITIBO EDO POSIBLE POSITIBO ETA KONTRA ANALISIAN NEGATIBO ATERATZEN BADA.

Printzipioz azienda horiek larretu edo bazkalekura bidali beharko dira aurretik udallean abisua emanaz (2. Eranskina edo 4. Eranskina).

Salbuespen gisa eta kontranalisiaren emaitza uztailean jasotzen bada, azienda ez da larretu edo bazkalekura eraman beharko.

Azienda etxean berrogeialdian eduki behar izan bada, bere bazkaleku egotea bazkalekuaren irekiera egunetik kontatuko du, hortaz behi bat positiboagatik 20 egun beranduago joaten bada bazkalekura, 20 egun horiek bertan egon bazen bezala hartuko dira,